

BAÑO ZE OSTIA DEK HAU?

Begiak zabaldu ditut bat-batean. Leku ezezagun batean aurkitzen naiz lurrean etzanda, erabat biluzik, potroak airean ditudala. Erabat nahasita daukat burua eta non nagoen asmatu ezinean nabil. Nire aurrean baginaz betetako izaki arraro eta amorfo bat dakusat, milaka alu txikiz osatutako piztia zirrargarri bat. Sekulako arrain ustel kiratsa dario eta mugimendu xebreak egiten dabil. Nire beldurraz ohartuta, modu lasaigarri batean agurtzen nau, bere *pottorburua* emeki astinduz. Konfiantza apur bat hartuta, nire hatza hurbiltzen dut zulotxo miragarri horietako batetara, jakinminaren minez. Behatz *puntta* sartzearekin batera sekulako goxotasuna sentitu dut nire gorputzeko milimetro bakoitzean, Jainkoaren beraren alua dastatzen izango banintz bezala. Zakila gogortzen ari zaidala sumatzen dut, gori-gori dago kontua. Oharkabean izaki bitxi baina eder hura ezerezean gelditu da prepuzio zorritsu bat bezala lurrean botata. Berau osatzen zuten milaka *pototak* hegan dabilta orain nire buru gainean eta badirudi jan egingo nautela. Ez da hiltzeko modu txarra alajaina. Dena den, heriotza umel eta bero hori pairatu beharrean, kirten hegadun talde bat azaldu da ezerezetik, musika zerutiar batez lagundua. Ez dit ilusio gehiegirik egiten horrenbeste *pito* ximel ikusteak, nirearekin nahikoa dudala iruditzen baitzait, baina, tira, okerragoa ere izan liteke; imajina buztan horiek fusilak direla, bala zuloz josita amaitu nezake. Kasu honetan, asko jota *laprasta* bero apur batekin igurtziko didate aurpegia, eta ez herioz betetako bala metalikoekin.

Nire burutapen eskizofrenikoetan murgilduta nabilela, ez naiz ohartzen nire ingurua eraldatzen ari dela. Nire alboan biraka dabilzan zakil eta aluak elkarrengana hurbiltzen hasi dira musikaren doinua jarraituz, dantza zentzugabe bezain liluragarri batean. Uste nuen moduan, elkarrenganatze hura penetrazio bilakatu da, sartu irten ero-beroa, milaka txorta-saio bilduz zeruan biraka; munduko emakumerik lirainena bezain *politta*, hiru barrabileko eskroto bat bezain arraroa eta Euskal Herria benetan maite duen jeltzale bat bezain harrigarria. *Kirtenkada* horietatik amapolazko haur ugari jaio dira, begi negartsu erraldoi batzuekin begira ditudanak. Munstro horiek heroinazko ke bihurtzearekin batera, nire birikengatik zurrupatuak izan dira, nire arimaren ezegonkortasuna zeharo asaldatuz. Dena den, sekulako poz sentazio alaiak bete dit barrena segituan, imajina daitekeen emozio bizenaren pare, ordu bete irauten duen orgasmo batekin konpara daitekeena. Tamalez, zorion sentazio horrek azkar egiten dit ihes, nire buruak izan ohi duen zentzu ziztrina galtzen ari naizela iruditzen baitzait, zakutokotu mingalari toko sexakizun baten sifilizazio anubrio motxardoa banintz bezala. Jada ez da hankarte horien arrastorik gelditzen, zerua argi bizizko bola psikodelikoekin betetzen ari da,

konponbiderik gabe erakartzen nautenak, Lami titi handi batzuen kantu xarmant baten gisa. Edertasun paregabe batek itsutzen nau haiengana hurbiltzen noan heinean. Unibertsoaren handitasun ilunaren erdian eroso zintzilik dagoen zulo beltz irenkor horietako baten moduan, miragarri bezain hilkor, gure gizadiaren handitasun eta harrotasun guztiak kakaren pare uzteko gai dena; edo urrezko argi santu barkatzaile bat, gure espezieak gauzatutako genozidio eta sarraski guztien ondorio, giza bizitza guztiak modu xume eta espiritual batean gidatuko dituen, jakinduriaz, bakez eta maitasunez betetako existentzia batera; edota ipurtzulo zikin, iletsu eta nazkagarri bat, batek daki ...

Argi dagoena da, *biribilkari* psikotropiko horien baitan aurkitzen dela benetako jakinduria, eta ezin dudala hemendik ospa egin *orifizio* zoragarri horiek esploratu gabe. Norbait dagoela dirudi hor barruan. Parez pare gaudela, nire antza handia daukala sumatzen dut. Ni izango ote naiz hor dagoen hori? Nola izan liteke? Ez da posible, baina ni neu naiz. Ni naiz! Baina aldi berean ez naiz, zeren nire gorpua hemen dago nirekin batera, eta ez hor pareko zulo horretan, nirekin. Ala bai? Ezin naiz bi lekutan batera egon. Beraz, ezin naiz ni izan. Baina hor nago, hemen nabilen bitartean, hori ukaezina da. Ni, nire aurrean, nire existentzia antzeman ezinik, nire aurka borrokan, ene irudia nire burmuinetik atera ezinik. Ni, ni, ni, ni, ni eta ni. Ta hi zer ostia? Zergatik egiten dut barre ni negarrez ari naizen bitartean? Oraindik nire mutur zerri hori txikitu beharko ... diot? naiz? Zer *kojonia*? Burua galtzen ari naizela iruditzen zait. Lurrera erori naiz belauniko, nire paranoiek behartuta, momentuaren arrarotasun lizuna lixeritu ezinik. Gora begiratzean nire begiradarekin egin dut tupust, sekulako arretarekin begiratzen ari *bainatzait*. Benetan itxura higuigarria dut oraintxe bertan, kanpotik ikusita badirudi nire buruari zakil zurrupaketa bat egin behar diodala. Zutitzea erabaki dut, irudi mental hori ahaztu nahian. Berriz parez pare nago nire aurrean, baina orain ez dut indarririk *filosofalotzen* hasteko, ea pikutara joaten naizen behingoz. Begiak itxiko ditut nire indar guztiekin ...

... Begiak zabaldu ditut berriz, azkar, nire ingurua aztertzeko. Ispilu baten aurrean aurkitzen naiz, horixe zen misterioa, ni naiz ni kaikua! Ez zakil hegalaririk, ezta ere heroinazko haurrik. Badirudi amaitu dela amesgaizto *psikodelizoso* hori. Non ostia ote nago? Gela arras dotore batean aurkitzen naiz, ondo zaindua, usain onarekin, giro goxoarekin ... Gustuko dut leku hau, bai horixe! Ohea *laprasta* markaz betea dago, baina tira, pasa nezake. Argi apal gorri batek berotasun itzela ematen dio txoko txikitxo honi. Kajoi bat irekiko dut, apur bat

kuxkuxeatzeko. Sekulako plastikozko buztan mardul batek salto egin dit aurpegira eta *kriston* sustoa eraman dut. Unetxo bat behar dut arnasa berreskuratzeko, ai ama, uste nuen burezurra zulatuko zidala. Gorde egingo dut munstro hori inori minik egin ez diezaion, badaezpada ere.

Denbora apur bat igaro da eta hemen ez da inor ageri. Eskerrak behintzat ohe eroso batean etzanda egoteko aukera dudan, barrabilak ferekatzen patxada osoz, mundu zerri honetan beste ardurarik izango ez banu bezala. Ez dakit ez non nagoen, ezta ere zenbat denboraz egon naizen hemen botata amets paranoikoez babestua. Ez dakit ezta zeren zain nagoen hemen, zerbaiten zain egon behar dudan ere ez dakidan arren. Baina berdin zait. Garai hobego batzuetan bizi izandako maisu jakintsu batek dion moduan: "hay que joderse, que bien se esta tumbau". Eroso jarriko naiz hankak zabaldua emakume lirainetan pentsatzen. Rosi de Palma, Angela Merkel, Maria Dolores de Cospedal ... mmmm hau berotua, hau! Dena *zakilixut* jartzen ari naiz oraintxe bertan...

Ate soinu batek itzuli nau errealitatera. Aho zabalka ikusten dut hainbat aingeru nire gelara sartzen. Ederra nexka puskak, kauen dio! Ez bat, ez bi, ez hiru... Hiru! Eta nolakoak gainera! Sekula ez nuen horrelakorik ikusi. Eta gutxiago dastatu, noski. Ai ama! Munduan inoiz existitu diren izakirik eder eta maitagarrienak kaka mokordo ustel eta kirastun baten pare uzteko gai diren loretxo xarmangarriak. Nolako begiak, nolako bularrak eta nolako hankak... Zeru zati bat hartu eta emakume itxura emango balie bezala. Burua galtzeko modukoak, egidazue kasu. Zakila ez ezik, arima bera ere zutitu didate.

Hurbiltzen doazen heinean beraien usain goxoaz gozatzeko aukera dut, kaskezur barruraino sartzen den horietakoa baita, eta hildakoak berpiztu eta berriz akabatzeko modukoa. Beraien ahots samurrak ileak tente jartzen dizkit, ezinezkoa da melodia goxoago bat imajinatzea. "Hator honea, politt hori, paradixura eamango haugu ta". Erabat blokeatuta gelditu naiz, ez naiz gauza muskulu bat ere mugitzeko. "Zer dek, motel, bildurra emate al diau, eo?" Hobe dut azkar erreakzionatzea, bestela ospa egingo dute eta festarik gabe geldituko naiz. Keinu lotsati batekin ohean etzateko esaten diet, eta halaxe egiten dute; bueno, batek behintzat. Nire alboan sentitzean, bere berotasunak estasi moduko batera narama eta bere gorputz zoragarria nire gainean sumatzean lehengo zuku *ttanttak* irtengo zaizkidala iruditzen zait. Jesus, Maria eta Joxe...behin ere ikusiko halakorik. Bere begi ederrak nire arima biluzten dute, bere ile marroi luzearen ferekak larrua tentetzen dit eta bere azal beltzaran epelak uzkia pil-pilean jartzen dit. "Eon hai lasai, utziak nere lana iten, ta flipau ingoek", *diosta* benetan era zoragarrian, bere ezpain bustiekin nire belarriak igurtziz. Nola ez ba *maittia*, horrela eskatuta edozer gauza egingo nuke; nire zakila moztu eta disekatuko nuke zuri oparitu ahal izateko. Eta

hori sekulako marka da, kontuan izanda gizon batentzat bere fusila baina gauza garrantzitsuagorik ez dagoela. Pixkanaka nire gorputz atal sakratuetara hurbiltzen ari da, benetan dotore, bere gerribuelta liraina emeki mugituz. Galtzen lehenengo botoia askatu dit ahoarekin, goxo-goxo, bere begi ikaragarri horiekin begiratzen didan bitartean; emakume batek soilik egin dezaken bezala: nire hankartea, burmuina, bihotza eta, oro har, nire gorputzeko atal guztiak astinduz. Eta hori oraindik ez dizkidala ezta prakak kendu. Martxa honetan kirten *puntta* ukitzen didanerako plazerez hilko naiz, ostia! Lasaitu egin beharko naiz pixka bat. Ohartzerako nire galtzak hegan atera dira, eta nexkak irrika ari dira nire galtzontzilo *xar* zulatuak ikusita. Nire makilaren gogortasunaz ere ohartu dira, *aluitak* ... "Gustoa hao e, majadero hoi ... ikusiko ek pa oain, pitua xurupatu ta hutsa lagatzeitenian". Ezinezkoa zirudien arren, lehen baina gogorrago jartzen ari naiz ... Eta esan bezala, lanean hasi da nire hankartean gora eta behera. Ez da hitzik asmatu oraindik horrelako plazer bat deskribatzeko gai dena, hori da hori urrezko mokoia. Momentu batetik bestera konortea galduko dudala iruditzen zait. Aaaai ama!

Halako batean, denboraren nozioa galtzen ari naizela ohartuta, likido fresko eta potente baten igurtziak begiak irekiarazi dizkit. Momentu batez non nagoen ere ahaztu dut, paradisuan egongo banintz bezala. Baina, noski, kasu honetan errealitatea edozein fantasia lizun baina ederragoa da, duda zipitzik gabe. Sentitzen ari naizen mugagabeko plazer honek uzten didan heinean, gora begiratzen dut, likido hori nondik isuri den jakiteko, urrezko eurite bat izan dela pentsatzeak sortzen duen mesfidantzarekin. Horren ordez eskutan whisky botila bat duen nexka maitagarri bat aurkitu dut, ohe gainean zutik, bere gona azpian ezkutatuta daukan altxor umela maisuki erakutsiz. Ederra ikuskizuna ... oso-osorik jateko modukoa. Horrelako neskalgun batekin ez nuke elikatu beharrik izango. Bere izterrak janda eta bere fluxuak edanda ederki biziraungo nuke. Zorion puruaz hornituko banintz bezala; zertarako gehiago behar?

Beste alkohol *laprasta* batek itzuli arazi nau errealitatera. Ahoa zabaltzen dut apur bat eman diezadan, deshidratazioak jota bainago. Modu bihurri batean egiten du irri, nire sufrimenduarekin gozatuz, eta sekulako tragoa ematen dio botilari. Hipnotizatuta nauka madarikatuak, ezin diot begiratzeari utzi. Bere urre koloreko ile leuna nola jausten den bularretan behera ikusi besterik ez dago, titi *puntta* tente horien artean dantzatzuz, mirari sineskaitz bat bezala. Gainera agintzea gustatzen zaio, ez dit uzten edaten, ez dit uzten berau ukitzen ... uste dut ezingo nukeela oraintxe bertan katxondoago jarri. Dio ... Bere hanka luze eta lirainak nire buruaren alboan jarri ditu, sekulako bistak eskainiz, eta pixkanaka botila guztia bere gorputzetik behera isurtzen du. "Ean nahi huan, zerri horrek, ba eantzak nere gorputza, oso-osoikan!". Joder, hori entzun orduko ziztu bizian hasi naiz bere gorputz ikaragarria miazkatzen, yonki zikin baten antzera, baina egia esan behar badut bost axola whisky puta.

Bere gorputza dastatzea baina gauza goxoagorik ez dago mundu zikin honetan. Izterretatik heltzen diot eta nire aurpegi gainean esertzen dut, alutxo eder hori dastatzeko intentzioarekin. Biziki maite dut *potota* eder bat jatea, ekidin ezin dudan gauza bat da. Hankarte bat ikustearekin batera muturra sartzeko sekulako gogoak sartzen zaizkit. Bada jendea hortik gustatzen ez zaiona eta onartu beharra daukat ulertu ezin dudan gauza bat dela. Nola ezin zaizu gustatu horrelako gozamen ikaragarri bat, ezin liteke posible izan. Horrelako jendeak hiltzea besterik ez du merezi, herriko plazan erdian enpalatu eta ikuskizun paregabe bezala amaitu, horixe da jaso beharko luketena. Gainera, onena ez da norberaren plazerra bilatzea bakarrik. Lana ondo egina dagonean beraiek sentitzen duten atsegina sumatzeak bakarrik erabat gogor jartzen nau. Kasu hauetan edozein detaile txikitan jartzen dut arreta. Esate baterako, gori-gori daudenean hankak dardarka hastea bezalako txorakeria hutsal batek erabat txoratzen nau. Ez dakit guztiz normala den, baina, tira, inoiz ez naiz pertsona normala izan, beraz ...

Denbora dezente noa jada mingaina astintzen, eta ez zaio asko falta deskargatzeko. Niri ere ez zait gehiegi falta, sekulako felazioa ari baitzait egiten beste atsoa. Halako batean nire muturrean eserita zegoen nexka altxa egiten da, orgasmoaren ordua atzeratu nahian, azkarregi ez bukatzeko. Hirugarren emakumea ere azaldu da azkenean, non ezkutatuta egon den ez dakidan arren. Itxura ederra du honek ere, benetan gorputz fina eta aurpegi zoragarria. Asiarra dela dirudi gainera, sekulako morboa ematen didate. Urrezko bandeja bat dakar esku artean, bertan hainbat arrasto jarrita daudelarik. Ohe gainean uzten du, lasai, eta nexkei lasai hartzeko keinua egiten die. Segidan niri begira jartzen da, zakuto erraldoi batekin eskuan, susmo txarra ematen didan begirada batekin. Segundo batean belarrondoko bat ematen dit poltsa irekia heltzen zuen eskuarekin. Sustoarekin ezin izan dut arnastea beste aukerarik izan eta oraintxe bertan nire barrualdea drogaz betetzen ari da ...

... Uf ... Ederra zartakoa. Zer zen hori? Ez dakit. Baina ederra zartakoa. Hau sentazio arraroa. Ezin geldirik egon. Burmuina erabat azeleratuta daukat. Uf ... Ez nago ondo. Ala bai? Agian ez da ezer. Normala izango da. Ezta? Horrela sentitzea ... Ez dakit. Matrailezurra dantzan dut. Hau ezinegona ... Bihotzak ihes egingo dit. Edo arimak. Edo zakilak. Edo denak batera. Ala ezerk ez? Joder ... Ederki nengoen ba ... Eta orain zer? Hil egingo naiz agian. Ez. Ez dut uste. Benga hi! Ez izan horren kakatia. Droga besterik ez da. Lasai. Lasai. Ez galdu burua. Lasai. Eutsi hor. Ez utzi paranoiei irabazten. Denborak dena sendatzen du. Hartu arnasa. Lotsagarri geldituko naiz. Gizajo. Burua bueltaka dabilkit. Amaiera da. Kaka zaharra. Juxtu orain. Bizitzako esperientziarik onenean. Hiru mirari nire inguruan. Eta ez naiz begiratzeko gauza. Ostia. Zeharo gaizki nago. Ezin diot buelta eman. Banoa. Ez. Joder. Eutsi, dio! Hartu arnasa. Sakon. Lasai. Ireki begiak ondo. Egin esfortzu bat. Mundu honetan jarraitu behar dut. Nexkak ohartu dira jada. Nire herio aurpegia ikusi dute. Kaka. Akabo. Zapla bat, bi, hiru. Larritasuna aurpegian. Horixe

ikusten dut. Itxura txarra. Saiatzen ari dira. Ni berpizten. Baina alferrik da. Zapla bat, bi, hiru. Baina alferrik da. Hau zartakoa. *Zakilkada* bat, bi, hiru. Ostia ... lehenagoko plastikozko munstro hura. Ez dakite zer egin. Ezta nik ere. Banoa. Alferrik nabil. Ez duzue uste? Zertarako borrokatu. Amaitu da. *Zakilkada* bat, bi hiru. Hiltzeko modu ederra. Begiak itxiko ditut nire indar guztiekin...

... Begiak zabaldu ditut berriz. Ez dakit non ostia nagoen, baina putakume bat zakil erraldoi batekin aurpegia txikitzen ari zait. Baina hau ez da plastikozkoa. Benetakoa da, oraindik odola isurtzen ari baita. Ez dago nexkarik nire inguruan. Munstro erraldoi zikin bat besterik ez dut ikusten, nire ipurtzuloaren barrualdea baina ilunagoa den leku alu honetan. Gaindosiak jota hil eta infernura jaitsiko ote nintzen? Ez dut uste ... hori ezinezkoa da. Baina nondik irten da ba orduan *zerrikote* hau? Eta zer ostia egiten du nire muturra astintzen kirten puska horrekin? Kauen dio, ederra eguna gaurkoa ... Beno, behintzat badirudi hau iratzargailu bat besterik ez zela, ni esnatzea beste helbururik ez zuena. Kolkotik heldu eta beste nonbaitera narama. Auskalo nora, ordea ...

Nire inguruan arreta jartzea erabaki dut, ea asmatzen dudan non nagoen. Oraingoz ikusten dudan gauza bakarra sua da, *inpernuko* su bero eta jasangaitza dirudiena. Gehiago fijatu ondoren hainbat gizakiren konpainian nagoela ikusi dut. Dena den, esan beharra daukat pertsona itxura askorik ez zaiela gelditzen. Guztien artean ere ezingo lukete gizon edo emakume bete bat osatu, moztuta duten gorputz atal kopuru handia kontuan izanda. Beraien parean pizti gorri nazkagarri bat dago (karramarro koloreko azala izaten duten giri baten antza hartzen diot), lasai asko masturbatzen, *palurdo* horien sufrimenduz gozatuz. Beste albo batean ikusten dudanak, berriz, oraindik nazka gehiago ematen du, ezinezkoa dirudien arren. El Boscorren "Jardin de las delicias" koadroko infernua motz gelditzen da hemen gertatzen ari denarekin. Tortura sexualen txokoa izango da hura, ederra nazka. Hasteko, hiru gizon eta hiru emakumez osatutako txitxi-burruntzi moduko bat ikusten dut, zurtoinean sartuta sekulako sufrimendua pairatzen ari direnak. Ipurtzulo eta ahoak erabat suntsituta dituzte, guztiz jota, eta aurpegian marrazten zaien oinazea inoiz ikusitako gogorrena da. Baina kontua ez da hemen gelditzen. Ikuskizun *bizarro* mordo dabilta nire inguruan. Erditik moztutako *desgraziatu* bat, bere goiko atala munstro gorri horietako baten ipurtzuloari itsatsita, behartutako koprofagiak gozatzen, bere beheko atala beste atzeratu bati atzetik ematen ari zaion bitartean. Gizon lodikote bat ere ikusten dut, guztiz lotuta, barrabiletako ile bat ere mugitzeko gai ez dela, bere aurrean deabru

nazkagarri barrezka duen bitartean. Bigarren honek moztutako buru bat dauka esku artean (ez galdetu nondik atera den) eta biziki ari da disfrutatzen gizaseme potolo horri sufriarazten. Zakilean haginkadaka hasi zaio buru odoltsu horrekin. Labana batekin kupela mozten ere ari zaio, dohaineko liposukzio baten antzera. Moztutako ipurtzulo bat ere atera du nonbaitetik eta alu horren ahoan jarri du bere indar guztiarekin. Bat-batean sable erraldoi bat atera du eta zakila moztu dio gizajoari, bi aldiz pentsatu gabe. Kirten mardula hartu eta burezurrean sartu dio gogor. Baina ez du sartu *pito* tente bat alu umel eta zabal batean sartzen den modura, astiro eta amorruz, ez horixe. Egia esan pena apur bat ematen dit, baina ezin dut ezer egin beragatik, beraz, ahaztea onena. Kontua da: zer ostia egingo ote didate niri?

Gela ilun eta bakarti batera eraman naute. Dena giza hezurrez beteta dago eta usteldutako milaka gorputz atalez. Odolez betetako operazio mahai batean etzanda aurkitzen naiz, lotuta. Behintzat jakingo banuke zer egin nahi didaten. Baina ikusitakoak ikusita ez dut ezer onik espero. Nire inguruan dauden munstroak irrika ari dira, nire patu beltzarekin disfrutatzen. Horietako batek plastiko puta bat atera du, ogitartekoak biltzeko erabiltzen direnak bezalakoak eta nire gorputza inguratzen hasi dira. Gorputz guztia estali didate, baita aurpegia ere, eta ez daukat arnasa hartzerik. Momifikazio zerri bat ari zaizkit egiten, sasikumeak. Hau sentsazio nazkagarria. Ezin naiz mugitu, ezin dut arnasarik hartu, eta horrek sekulako ezinegona sortzen dit. Ez dakit nola existitu daiteken jendea honelako gauzekin berotzen dena, hau higuina! Azkenean ahoan zulo bat egitea erabaki dute, eta nire onera itzultzen hasi naiz apurka. Baina ez dira hor gelditu, noski. Bere eskutzar gorri nazkagarria oso-osorik sartu dit ahotik, nire bular barrutik bihotza lapurtu nahiko baluke bezala. Beste *aluita* batek giza larruz forratutako zurtoin erraldoi bat hartu eta sekulako egurra ematen ari zait. Hirugarren deabru batek herdoildutako zerra zahar eta ustel batekin azaldu da, eta nire hanka eta izterrak mozten hasi da, herri-kiroletako egur *trontzo* ximel horietako bat banintz bezala. Joder ... Inoiz ez nuen horrelako min gogor eta bizirik sentitu. Espero dut laster hilko naizela. Baina, hilda banago eta hau infernua bada? Noiz arte pairatu beharko dut horrelako agonia? Gainera kabroi hauek ez dute segundo bat bera ere galtzen. Zakila moztu didate orain, ostia! Lehen gaizki baldin banioan, orain jada ... Odol mordoan ari naiz isurtzen nire sakramentuetatik. Orain bai, uste dut hau amaiera dela. Begiak itxiko ditut nire indar guztiekin ...

... Begiak ireki ditut berriz. Erabat nahasita daukat burua, eta ez dakit non ostia nagoen. Nire begiek oraindik ez didate ezer ikusten uzten, argira ohitu gabe daude. Behintzat

ez nago hilda, ez da kontsolamendu makala. Pixkanaka nire ingurua argitzen doa, eta nire etxeko egongelan nagoela ohartzen naiz. Ez dago aluz osatutako piztiarik, ezta ere nexka maitagarriarik, eta ezta ere *inpernuko* munstro torturatzailerik. Nire lagunen artean aurkitzen naiz, zerbeza lata eta whixky botila hutsez inguratua. Baina, galtzak jaitsita dauzkat eta sekulako odol putzua dago lurrean. Nire kirtenetik ari da odola *ttanttaka*, zer ostia gertatuko ote zen? Ez dakit baina oso nekatuta nago. Begiak itxiko ditut berriz, lasai, jakinda agian ez ditudala berriz irekiko sekulan ...